



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa batek bere balio-proposameneko eskaintza garatu, bezeroengana iritsi, harremanak izan eta diru-sarrerak sortu ahal izateko behar dituen baliabide guztiak dira.

1. Baliabide fisikoak

Lanerako espazioa proiektuaren egoitza gisa erabiliko da. Teknologia eta komunikazioari dagokionez, ordenagailua diseinuak egiteko, webguneak sortzeko eta informazioa kudeatzeko balioko da, eta telefonoa bezeroekin harremanetan jartzeko. Materialak diseinuak eta prototipoak egiteko erabiliko dira. Produktoak eta osagaiak, hala nola tapoi iragazkaria, haren osagaiak eta iragazkiak (gatza kentzeko eta ura garbitzeko), plastikozko tapoiak eta bestelako material praktikoak, proiektua martxan jartzeko funtsezkoak dira.

2. Baliabide intelektualak

Ideia eta jakintza espezifikoak proiektuaren oinarria da: tapoi iragazkariaren ideia eta berrikuntza, Ionon sormena barne. Ezagutza teknikoak ura filtratzeko teknikan eta gatz- eta hondakinen iragazketan oinarritzen da. Gainera, webguneak diseinatzeko ezagutzak eta produktuaren diseinu praktikoa eta erabilgarri egiteko dira baliabide intelektual garrantzitsuak.

3. Giza baliabideak

Proiektua martxan jartzen duten pertsonak eta haien trebetasunak honakoak dira: Urko eta Sofia, informatika eta web diseinu ezagutzak dituztenak; Kiran eta Gaizka, salmenta eta antolaketa abileziak dituztenak; eta taldeko gaitasun orokorrak, sormen eta lankidetzak ahalmenak barne.

4. Finantza-baliabideak

Proiektuaren hasierako aurrezki pertsonalak dira finantza iturri nagusia. Etorkizunean, diru-laguntzak edo inbertsio txikiak lortzeko aukera dago, proiektua garatzen joateko.

IOIKANen kasu praktikoa:

Urko Abecia, Chloe Kiran Hussain, Gaizka Medina, Sofia Voloshyna.



Koru enpresa.

WEBGUNEA. <https://2621545.playcode.io/>

Urko Abecia, Chloe Kiran Hussain, Gaizka Medina, Sofia Voloshyna.